

## **KONTROL MOZIOA**

### **Renfe Mugi sisteman sartuko dela eta**

Ayem Oskoz Urrutikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2018ko uztaileen 9an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **AZALPENA**

Uztaileen 5ean Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak RENFE Mugi sisteman sartzea onartu zuen. Albistea pozgarria da benetan. Pozgarria izanda ere, gai batzuk argitzeke geratu dira, prentsan ikusi dugun moduan, eta aldi berean ikusi dugu Renfe, Mugin dauden beste operadore batzuekin alderatuta, ezaugarri propioekin sartuko dela Mugi sistemaren barruan. Edo beste era batera esanda, Renfek orain arteko abantaila batzuei eutsiko diela, beste operadore batzuek, Mugi sistemaren integrazioaren alde, abantaila horiek galdu dituzten arren.

Hori horrela, Mugi sistemaren barruan dauden operadore eta konpainien artean, bereizketa edo diskriminazioarik ez egitea litzateke justuena.

Horregatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA**

1.- Udaltzatzen hertsatuki eskatzen dio Udaltzen Gobernuari, Donostiako Udaltzen Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzan dituen bi ordezkarien bitartez, eskatu eta defenda dezala Mugi sistemaren barruan jarduten duten operadore eta konpainien artean bereizketa edo diskriminazioarik ez izatea.

Donostian, 2018ko uztaileen 12an

Ayem Oskoz Urrutikoetxea  
EH Bildu udaltzen taldeko zinegotzia